

EKBren Biltzar Nazionala

“Hegats” Literatur Aldizkariaren 4. zenbakian, Bernardo Atxaga idazleak halako galdera egiten dio bere buruari: «*euskara egiten ari den bidaiaria luze eta neketsu honek norabide zuzena ote dauka?*» Galdera horren adierazgarri, Atxagak *Etiopia* liburuan erabilitako irudi bat erabiltzen du oraingo honetan ere:

«Baziren dortoka batzuk, Galapago irletan bizi zirenak. Dortoka hauek galdu egin zuten bere orientzio sena leherketa atomiko bat zela eta. Nola sena hori galdua baitzeukaten, itsasora joan beharrean, ustez itsasora zihoazela, deserturantz egiten zuten korri, kontrako alderantz. Zenbat eta ur premia gehiago izan, hainbat

eta korri gehiago egiten zuten deserturantz, hori da, heriotzerantz.

...bada askotan pentsatzen dut ahalegin horiek, on beharrez, asmo on eta hobeez, euskara desertura eramango dutela, ez itsasora. Orduan, galdera litzateke: gure dortoka ondo al dihoa? Behar den bidean al dago?

EKBko partaideok ere galdera bera egin diogu geure buruari: behar den bidetik al doa gure dortoka zaharra? Kezkaturik gaude benetan egun euskararen inguruan ematen ari diren gertakizunak, jarrerak, egoerak etabar direla medio, eta, uste dugu hausnarketa serio, sakon eta zabal bati ekiteko garaia dela.

*Kezkaturik gaude
benetan egun
euskararen
inguruan ematen
ari diren
gertakizunak,
jarrerak, egoerak
etabar direla
medio, eta, uste
dugu erreflexio
serio, sakon eta
zabal bati ekiteko
garaia dela*

Beraz, EKB osatzen duten pertsona eta entitate guztiek horrela erabakirik, hausnarketa hori bideratzeko inizatiba hartu nahi izan du EKBk, eztabaida kolektiboa, hau da, indar sozial guztien arteko hausnarketa sakon eta publikoa bultzatuz. Jende asko eta oso desberdinegan iritsi nahi da, bere iritzi eta erreflexioa jaso eta kaleratzeko, gerora, ekarpen guzti horiekin, Biltzar Nazional zabal baten oinarritzko txostena osatu ahal izateko.

Proposamen honekin planteatzen ari dena ez da Biltzar huts bat egitea, non aurretik batzorde batek, pertsona gutxi batzuk, landutako txosten bat aztertuko den. Bideratu nahi dena eztabaida kolektibo bat da, abagadune berezi eta larri honen aurrean indar sozial guztien arteko hausnarketa sakon eta publikoa, gizarte eta kale mailako eztabaida. Horregatik, EKBk hainbat eta hainbat jenderen artean bi dokumentu banatu ditu, dokumentu irekiak: lehenengoan, oinarritzko abiapuntuak, euskararengan eragiten duten faktore berriak eta galderaguneak jasotzen dira, bigarrenean, eranskin gisa, galderaz osaturiko zerrenda luze bat ematen dugu. Bi dokumentu ireki hauek lagungarri gisa banatu dira, aportazio ezberdinak jasotzeko. Gerora, esan bezala,

aportazio guzti horiekin Biltzarrerako oinarritzko txostena idatziko da, hiru gai nagusiren inguruan:

- Euskararen egungo koiunturaren azterketa.
- Euskararen beharrak eta horiei egokituriko etorkizunerako estrategia.
- EKBren egokitzapena behar eta estrategia berriari, programa eta egituraketa.

Martxoaren 28an ospatuko den Biltzar honen inguruan zer esan badagoela uste dugu, zer esan dutenak ere asko dira. Denon ahotsa eta eritzia bildu nahi du EKBk, denon artean aterako bait dugu dortoka zaharra desertuaren lehortetik eta itsasora eramango.

Aurrera begira

Orain dela 12 urtetako ilusioa gogoraturik, orain dela hamar urtetako "BAI" haren ondorioak ikusirik, eta Euskararen eta Euskal Kulturaren gaur-gaurko itolarriaz jabeturik, zenbait herritar etsipenean erortzen ari da edota "pesimismo aktibozko" jarrera hartu du. Sintoma oso txarra da hori; eta horren antidoto gisa, EKBk baikortasunaren mezua eta jarrera zabaldu behar dituela uste dugu aurrera begira; ez, ordea oinarririk gabeko baikortasun merkearen eta faltsuaren predikua egiteko, eta bai, orain arteko okerrak zuzenduz eta aurrerantzerako baldintzak aldatuz, euskararen eta euskal kulturaren "Uhin berri eta indartsuaren" garai berriaren mezua eta itxaropena zabaltzeko.

2000ren helmugara begira jarri behar dugu, eta hari begira lan egiteko konfidantza zuzpeltu, euskara eta euskal kulturaren egoera eta dinamika desorekatuak irauli daitezkeelakoan, eta benetan iraulbidean ipini.

Eztabaida kolektibo bat bideratu nahi da, koiuntura berezi eta larri honen aurrean indar sozial guztien arteko hausnarketa sakon eta publikoa, gizarte eta kale mailako eztabaida

EKBk aurrera begira baikortasunaren mezua eta jarrera zabaldu behar dituela uste dugu

Erakunde ofizialen politikaren okerrak

Hegoaldean

1.- Euskararen normalkuntzaren helburua bera oker eta motz jarri dute, gizartearen elebitasuna helburutzat hartu dutenean.

2.- Instituzionalkeria. Herritarrak beren hizkuntzarekiko politika eta administrazioaren "objektutzat" hartu izan dituzte. Eta horregatik, erakunde herritarren dinamika eta ekimenak kontrolatzera edota itotzera jo dute.

3.- Plangintza orokorrik ez. Irakaskuntzan eta komunikabideetan jarri dute beren "fedea" eta ahalegina bereziki, plangintza orokorrik gabe. Euskararen berreskurapen osorako politika global eta autonomorik ez dute eduki. Eta plangintza orokorrik ezean, politika orokorraren menpe gelditu da euskararen politika partziala.

Iparraldean

1.- Iparraldeko kasua oraindik askoz okerragoa da, zeren eta, inolako ofizialtasun ezean, bertako Erakunde Ofizial nagusientzat frantziara hizkuntzatik aparte ez bait dago besterik.

Erakunde herritarren okerrak

1.- Konpaktazio eta koordinazio eza. Euskal Kulturako sail guztietako talde eta elkarte herritarren koordinazioa eskasa izan da.

2.- Euskararen berreskurapenerako mugimendu

Instituzioek herritarrak beren hizkuntzarekiko politika eta administrazioaren "objektutzat" hartu izan dituzte eta horregatik, erakunde herritarren dinamika eta ekimenak kontrolatzera edota itotzera jo dute

herritarren indarrarekiko lilura handiegia; eta aldi berean erakunde ofizial publizkoei buruz tirabirazko eta sarritan etenezko jarrera, konfrontazio politika bultzatuz.

3.- Euskara euskaldun guztiona eta guztiontzat dela ahaztu izana, "abertzaleon" arazo bihurtuz, eta horrexegatik gure arteko borrokagai bihurtuz.

4.- Erakunde herritarren aldetik erakunde ofizialei buruzko dialektika serio, sistematiko eta iraunkorrik eza.

Oinarrizko abiapuntua

Urte hauetan egindakoaren gain oinarritu behar dugu hausnarketa, egindakoa asko eta garrantzitsua bait da.

Erreflexioa aurrera begira, hau da, etorkizunari begira egin nahi dugu.

Etorkizuna ilusioaren gain oinarritu behar dugu, baikortasun kritikoan edota kritikotasun baikorrear. Finkatzen dugun lan-estrategian euskaltzaleei aurrera jotzeko bide garbiak eskaini behar dizkiegu, hori bait da euskararen inguruan indarrak biltzeko era egokiena.

Faktore berriak

EKBz kanpoko faktoreak

Eraso berri bat. Euskarak erasoak beti jasan baditu ere, azken urte hauetan kontrako indarrak harrotzen ari dira, lotsagabetasun berri batekin iharduten dute aurka (PSOE, UA, ...)

Alderdi eta Instituzio batzuren aldetik herri-ekimenarekiko nolabaiteko irekitasun bat adierazi da, honen beharra aitortuz. Hala ere, ez da oraindik artikulazio edota elkarlan egokirik bideratu.

*Erakunde
herritarren oker
nagusia
konpaktazio
eta
koordinazio eza
izan da*

*Azken urte
hauetan
Euskararen
kontrako indarrak
harrotzen ari dira*

*Alderdi eta
Instituzio batzuren
aldetik herri-
ekimenarekiko
nolabaiteko
irekitasun bat
adierazi da, honen
beharra aitortuz.
Hala ere, ez da
oraindik
artikulazio edota
elkarlan egokirik
bideratu.*

Euskararen inguruan inizatiba berriak sortzen ari dira. Egunkaria, Nafarroako Oinarriak, euskara-elkartek...

Erabilpena hizkuntz-politikaren ardatz bihurtzen ari da. Erabilpenaren inguruko datuak ere baditugu EKBren neurketari esker.

Euskararen inguruko diskurtsoan bestelako elementu berriak ere ari dira sortzen eta zabaltzen:

Gune euskaldunen beharra: territorialak (Udalerrri Euskaldunak), intersektorialak (Arrasateko hitzarmena) edota funtzionalak (euskara lan-hizkuntza administrazioko zirkuitu elebidunetan).

Hizkuntz komunitatearen konpaktazioaren inguruko teoria osoa.

Euskararen mungimenduan bilatzen ari den zabaltasun ideologikoarekin kontraesanetan sartuz, alderdi politikoekiko menpekotasun handiegia sortzen ari da; bai bait dirudi zabaltasun horren patentea alderdiek dutela, hau da, euskararen aldeko taldearen zabaltasuna frogatzeko ezinbestekoa dela alderdien oneritzia jasotzea.

Politikoak, berriz, ez dira inolaz ere euskararekiko eredu, jarraitzen dute euskara goraiatzeko baina erdara nagusiki erabiltzen. Horren eredu, kargu publikoen euskararen erabilpen eskaxa.

Barne-faktoreak

Hazkundera. Azken hiru urte hauetan EKBren azpiegiturak hazkunde handia ezagutu du. Zerbitzuak izan dira hazkunde honetan gehien eragin dutenak. Udalerrri Euskaldunentzako asesoria, Ahokularitza Juridikoa, Dokumentazio Zerbitzua, Hizkuntz Plangintza, BAT-Soziolinguistika aldizkaria...

Europara jauzi egin du EKBk. Europako Hizkuntz Gutxituen Aldeko Bureauren Hego Euskal Herriko ordezkartzaren, HIZGABEren ardura eta zama nagusia EKBk bere gain hartu bait ditu. Europako beste herriein harremanak gero eta sendoagoak dira, eta hori nabaritzen ari da.

EKBk eraso asko jasan du: BATEGINIK kanpainaren ingurukoak, alderdien adierazpenak, artikulua, ... Honek kalte handia eragin du, EKBren inguruan zabaltasun ezaren (bere praktika erabat alderantzizkoa izan denean) irudia hedatu bait du.

Akordioa. Hori izan da EKBren betiko ardatz nagusia: herri mugimenduaren inguruko erakundeak bildu eta indartu, eta Instituzioekin akordioetara iristeko bideak zabaldu. 91ean alderdiei proposamen zehatz bat egin zaie herri mailako euskararen ihardueraren inguruan akordio batetara iristeko; Nafarroako HPZNri proposamen bat egin zaio Nafarroan euskararen irudikanpaina bat bideratzeko; Komunitate Autonomoko HPINri ere denbora da elkarrizketa eskatu zaiola; helduen euskalduntze-alfabetatze arloan ari diren erakunde guztiak elkarlanean jartzea lortu da EKBko Helduen Euskalduntze-Alfabetatze Sailean; lan munduko hainbat ordezkariarekin proposamen bat prestatzen ari gara Nafarroako sindikatuen artean lortutako akordioa Hego Euskal Herri osora hedatzeko.

*Euskararen
mugimenduan
bilatzen ari den
zabaltasun
ideologikoarekin
kontraesanetan
sartuz, alderdi
politikoekiko
menpekotasun
haudiegia sortzen
ari da*

Galdera-guneak

Etorkizunaz eta estrategietaz

Euskararengan eragiten duten faktore guztiak kontutan harturik (aldekoak, aurkakoak, instituzionalak, sozialak, ekonomikoak,...) euskara aurrerabidean doala ziurta al dezakegu?

*Honakoa izan da
EKBren betiko
ardatz nagusia:
herri
mugimenduaren
inguruko
erakundeak bildu
eta indartu, eta
Instituzioekin
akordioetara
iristeko bideak
zabaldu*

Normalkuntza prozesuan, gaur eta datozen urteetan, zeintzuk izan beharko lukete estrategia-ardatza nagusiak?

Trinkotze eta bilguneaz

Kontutan hartzen badugu zeintzu izan diren EKBren hasiera hasierako funtzio nagusiak, hau da: indar sozialen trinkotze-bilgunea ahalbideratzea, guzti hauen arteko koordinazioa lantzea eta hizkuntzaren normalkuntzaren planifikazioan sakontzea eta honen teknika zein metodologia hedatzea; aurrerantzean nola egin behar du lana EKBk gaurko beharrei eta estrategia berriei egoki erantzuteko?

*J. Inazio Marko Juanikorena
EKBko Idazkari Nagusia*